

Gaur bukatuko dira udaleku irekiak Hernaniko umeentzat

■ Uztaila osoan ibili dira 55 monitore eta 4 koordinatzailek gidatuta Hernanin eta inguruetan ■ Eguraldi txarrak baldintzatu ditu aurtengo udalekuak.



Umeak karamelo eske eta monitore eta gurasoak begira.

3TIK 9 urte bitarteko 476 ume uztaila osoan ibili dira tailer, jolas eta bestelako ekintzetan, 3 adin tartetan banatuta (3-4, 5-6 eta 7-8-9) eta 15-25 umeko taldeetan. Begiraleen hitzetan "primeran pasa dute aurten ere" eguraldiak gauzak asko mugatu baditu ere. Penak pena gaurkoarekin esango diote agur udalekuei hurrengo urterarte.

ASTEAK GAIKA
Aste bakoitza gai baten bueltan antolatu dute, eta horren inguruko jolas eta ekintzak egin dituzte gero. Natura, mitologia, garraioak, beste kulturak... izan dira gaietako batzuk. Esaterako, txikienekin euskal mitologiako pertsonaiez mozarrotu eta herrian barrena ezkutatu ziren monitoreak. Umeek bilatu egin

behar zituzten. Txorutzen omen zeuden gero *Tartalo* edo *Mari* ikusi zutela-eta.

Amagoia koordinatzaileak balorazio ona egin du aurtengoaz. Hurrengo urterako zer aldaztea nahiko luketen galdetuta "umeak nahastu egin nahi ditugu taldeetan, elkar ezagutzeko, ikastetxe berekoak talde berean egokitzen baitira bestela".

Manifestazioak egin ziren Hernanin atzo Olaia Kastresanaren heriotza salatzen, Amnistiren Aldeko Batzordeek deituta

■ Gaur Donostian Manifestazioa eta Omenaldia izango dira.

OLAIA Kastresana ustezko ETAKidearen heriotzaren ondorioz, *Borroka Eguna* deitu zuten AABBK atzorako.

Hernanin manifestazioak izan ziren eguerdiko 13:00etan eta ilunabarreko 20:00etan. Gaur, Donostian dira, manifestazioa

12:30etan eta omenaldia 19:00etan, biak Bulebarrean. Hernaniko AABBK bertara joateko deia egin dute.

MENDIRIZ MENDI

Alpeetara 'espedizioa' bost egunetarako

■ Mendiriz Menditik, gaur bertan abiatuta, Alpeetara dijoaz bost egunetarako, Tour zaleek mendiak eta bideak libratu badituzte behintzat. 40 lagun joango dira, autobusez. Hiru eta lau mila metroko mendiak igo, *Via Ferrata* egin eta paraje politak ikusteko aukera izango dute. □

TXANTXANGORRI ELKARTEA

Gipuzkoa mailako plater tiraketa bihar, 'minifoso' modalitatean

■ Santa Barbaran jokatu da, 15 plateretara ■ Izena emateko 16:00etatik 18:00etara.

TXANTXANGORRI elkarteak probintzia mailako tiraldia antolatu du larunbaterako. Tiraldia *minifoso* modalitatean da, naranja koloreko 15 plateretara eta sei tiratzailetako taldeetan.

Denera, bost kategoria izango dira eta 126.000 pta banatuko dira saritan. Kategoría bakoitzeko txapeldunak 9.000 pta jasoko ditu; bigarre-

nak, 7.500 pta; hirugarrenak, 6.000 pta; laugarrenak, 5.000 pta eta bosgarrenak 4.000 pta.

IZENA EMATEA 2.500 ETA 3.000 PTA

Txantxangorriko bazkideek 2.500 pta dute izena ematea eta bazkide ez direnek 3.000. Beteranoek, gazteek eta emakumeek, berriz 350 pta ordainduko dute serieko. □

BERRIAK ELKARTEA

Josune Garayarrek irabazi du Berriak elkarteko zozketa

■ Berriak elkarteak bere aldizkariaren bigarren zenbakia atera eta zozketa berria jarri zuen martxan: aldizkarian merkataria eta ostalari elkartearen logotipoa zenbat alditan ateratzen den asmatzea.

Zozketako irabazlea Josune Garayar Garmendia izan da. Josunek 25.000 pezetako saria du *Berriake*ko dendetan gastatzeko.

Antziola kalea itxita egongo da bihar 15-17 portal parean

OBRAK direla-eta bihar, larunbata, Antziola kalean bidea moztuko dute goizeko 07:00etatik gaueko 22:00ak arte. 15-17 portal parean itxiko dute bidea. Ordezko ibilbidea Floridatik Antziola 37ra dijoan bidea izango da. □


SANSONATEGI

HERNANI GIPUZKOA



TFNOA - FAXA: 943 553 260

JATETXEA
SAGARDOTEGIA



ITXASPE

ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI



MUEBLES HERNANI

DENDA IXTERA GOAZ.

LIKIDAZIOAREN AZKEN EGUNAK

Altzariak Beherapen haundiagoarekin.

Astehenetik Ostiralera 16:30etatik 19:30etara eta Larunbatetan 10:30etatik 13:00etara Zabalik.

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

SENIDEAK-GUREAK ELKARTEA

Presoak Euskal Herriratzearen aldeko ekintza errepidean bihar

■ Hernaniarrei bihar 11:30etan Atsegindegira azaltzeko deia egin diete ■ Bestalde, gaur egitekoa zen enkartelada suspenditu dute Donostiko omenaldira joateko.

Senideak-Gureak elkarteak euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuko dute errepide nagusietan egingo duten protestaldian, bihar 12:00eta-

tik 13:00etara. Protesta ekintza hori 200 kilometrotan egingo dute.

Bestalde, hilerio Hernanin egiten den presoan aldeko en-

kartelada bertan behera utzi dute; Olaia Kastresanaren heriotza dela-eta Donostiako omenaldira joateko deia egin du *Senideak-Gureak* elkarteak. □

PELOTA - LAUTERDIKO TXAPELKETA

Oier Mendizabal eta Jagoba Yuberok jokatu dute 'Lauterdiko' finala

■ Bihar jokatu dute eguerdiko 12:30etan, Tilosetan.



Unai Alvarez, final laurdeneko partiduan.

LARUNBATEAN erabakiko da zein den Hernaniko *Lauterdiko* txapelketa kadete eta jubeniletan. Orain dela hiru

urte hasi zen Pelota elkarteak gaztetxoentzako *Lauterdiko* Txapelketa antolatzen. Rufino antolatzaileak Kronikari

esan dionez, gaztetxoek oso gustora hartzen dute. "Behin Santuak pasa ezker herrietan txapelketa asko jokatu dira, baina horietara punta-punta-koak bakarrik gonbidatzen dituzte eta gainerakoak ia partidurik gabe gelditzen dira" dio Pelota elkarteak.

Aurreko bi edizioekin konparatuta, aurtengo nobedadea jubenilak sartzea izan da, aurreko bietan kadeteak bakarrik aritzen baitziren. Aurten, dena, 14 pelotari atera dira: 7 kadete eta 7 jubenil.

Faboritua zein den ez dago garbi. Oier Mendizabal oso ondo dabil eta gainera Yubero baino urtebete zaharragoa da. Baina, Yuberok ere askotan erakutsi du ze kolpeko pelotaria den. Larunbatean zita.

ERREMONTEA

'Bingo Londres' buruz buruko txapelketa larunbatean hasiko da

■ 13 pilotarik hartuko dute parte ■ Faborito nagusiak Lizaso eta Ezkurra dira.



Jokin Etxabek larunbatean jokatu du.

ERREMONTEKO buruz buruko txapelketa bihar hasi eta irailean bukatuko da Galarreta pilotalekuan. Hamabi pelotari daude bi taldetan banatuta. Iazko sailkapenetik eskaileran

jokatuko dute elkarren kontra eta finalean iazko txapelketa izango dute zain: Iñaki Lizaso.

ETXABE HASIERATIK

Lehenengo partiduan Jokin Etxabek (Hernanin bizi den azkoitiarrak) jokatu du Iñigoren kontra. Partida irabazi ezker abuztuaren 4ean Anjel Lekunberri izango du zain.

EZKURRA ETA LIZASO FAVORITO

Iaz Lizasok irabazi arren, faborito nagusia hainbat aldiz irabazitako Ezkurra izango da aurtengoan ere. Berritua bi doneztebearren arteko finala izan daiteke, adituaren arabera. □

- Etxabe - Iñigo Uztailak 28	- Txikuri - Etxeberria II Abuztuak 2
- A. Lekunberri - ? Abuztuak 4	- Iriarte - ? Abuztuak 9
- Altuna I - ? Abuztuak 11	- Aizpuru - ? Abuztuak 16
- Eizagirre - ? Abuztuak 18	- Urretabizkaia I - ? Abuztuak 23
- Ezkurra - ? Abuztuak 25	- Zeberio II - ? Abuztuak 28

Finalaurrekoa

Irailak 1

FINALA

-Lizaso
-?

Irailak 8

Karabeleko kruzean rotonda egiten ari dira

■ Trafiko arazorik ez izateko udaltzaingoak bariantetik ibiltzeko dio ■ Obrak ez du luze joko.



Rotonda egiteko obrak Karabeleko kruzean

JOAN den astelehena ezkerrotzik Karabeleko kruzean rotonda egiten ari dira. Hori dela-eta, trafikoan gorabeherak izan dira. Karabeleko kruzetik Zikuñagara eta alderantziz bidea itxita dago.

BARIANTETIK BARRENA

Trafiko arazorik ez izateko udaltzaingoak herria pasatzeko bariantea erabiltzeko gomendatzen du. Kotxeek auke-

ra gehiago ere badituzte: herri barrutik ateratzeko Balantxatik barrena eta Portuko bidetik barrena. Gainontzean, bariantea hartzea onena. Poligoanotarako buelta egin behar duten kamioiek, berriz, zuzenean bariantea erabili beharra daukate.

Lana rotonda egitea bakarrik denez, obra hamarren bat egunen bueltan ibiliko omen da. □

ARANOKO JAIAK

Jende asko ibili da aurten Aranoko jaietan

■ Santiyo egunean frontoi aurrea bete egin zen herri kirolak ikusteko ■ Ostegunean jubilatutako eguna izan zen.



Mieltxo Saralegi exhibizioan, Aranora bildu zirenen gozagarri.

BUKATU dira aurtengo Santio Jaiak Aranon. Jai batzordeko kide batek Kronikari adierazi dionez festak oso ondo joan dira eta jende asko ibili da. *Santio* egunean bertan, goizetik hasita izan zen jende mugimendu handia. Meza ondorenean, pelota partidua: Arano

Goizuetaren kontra eta etxekoek irabazi zuten. Arratsaldean, herri kirolak, bertsolariak eta trikitilariak borobildu zuten eguna. Atzo, herriko jubilatuek bazkari ederria egin zuten Herriko ostatuan Agirre-Lazkano bertsolariekin eta Leire-Itxaso trikitilariekin. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☛ Taxiak: 943 550093
- ☛ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☛ DYA: 943 464622
- ☛ Autobusak: 943 556662
- ☛ Anbulatorioa: 943 557750
- ☛ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☛ Egunez: Gomez
Kale Nagusia 15
☎ 943 554892
- ☛ Gaez: Atxa-Orbea
Lasarte, Hipodromo etorbidea 6
☎ 943 363549

IRAGARKI MERKEAK

■ Loro txiki bat galdu da Karmelo Labaka inguruan. Berdea eta horia da. Ikusi duenak deitu: **630-118852**.